



Eusko Jaurilaritzak arautuak ditu euskarazko ikus-entzunezkoen ekoizpenen estreinaldiak sustatzeko diru-laguntzak. Aurtengo deialdiari dagokionez, 584.527 euro banatuko ditu Kultura Sailak film luzeak bikoizteko, azpidatziak jartzeko, bideo eta DVD euskarrian dauden filmak euskarara bikoizteko, euskarazko bertsioak sustatzeko eta abar.

Euskarazko film luzeen merkataritza-estrealdiak egiteko eta euskarazko DVD eta bideoak egiteko deialdiaren ondorio dira, esaterako, aurreko urteetan pantailan ikusi ahal izan ditugun zenbait film: *Pianojolea*, *Shin Chan bola galduaren bila*, *Supertramps*, *Deep Blue*, *Unibertsolariak munduaren ertzaren bila*, eta abar.



Gero eta etorkin gehiago dago gure artean. Horietako asko ostalaritzan ari dira lanean. Bezeroek euskaraz eskatzen dutenean erantzun ezinik geratzen dira eta, ondorioz, faborez gaztelaniaz hitz egiteko esaten diete haiiei. Hori gogoan, HABEK eta Elhuyar Aholkularitzak *Ostalaritza 1: tabernan* eta *Ostalaritza 2: jatetxean* izeneko material didaktikoa argitaratu dute, euskaraz ez dakiten ostalaritzako langileei zuzendurik.

Argitalpenen helburuaren arabera, bildumaren bidez langileek edariak eta pintxoak euskaraz zerbitzatzen ikasiko dute, bezeroak kontua eskatzen duenean ulertzen eta kobrantza egiten, edo eguneko menua eskaini eta eskaera ulertzen.



Urtero bezala, abian dira Euskadi literatura sariak, ohiko lau modalitateetan; hau da, euskarazko literatura, gaztelaniazkoa, haur eta gazte literatura eta, azkenik, itzulpen onenarena. Jakina denez, sarien helburu da sortzaileei esker ona jendaurrean agertzea, beraien lanari laguntzea eta literatura lanen zabalkundea sustatzea, beste hizkuntzetara egin litezkeen itzulpenen bidez.

Izen eta egile arrunt ezagunak ageri dira orain arteko sarituen artean: Bernardo Atxaga, Itxaro Borda, Anjel Lertxundi, Koro Navarro, Felipe Juaristi, Paloma Díaz-Mas, Ramon Saizarbitoria, Irene Aldasoro, Patxi Zubizarreta, Eduardo Gil Bera...



Iaz euskaraz argitaratu ziren liburuentzako diru-laguntzen berri eman du Eusko Jaurilaritzak. 514.000 euroko diru-partida izendatu zen eta guztia banatu da. Hogeita hamaiaka argitaletzek, edota kultur elkartek, aurkeztu dituzte liburuak. 344 titulu, denera, eta horietarik 319k jaso dute laguntza.

Era berean, euskal liburuaren itzulpenetarako diru-laguntzak ere ebatzi dira. Orotara, 60.572,70 euro banatu dira euskaraz idatziak izan eta gaztelarera, frantsesera edota ingelesera itzuliko diren 32 liburuaren artean. Horien artean dira, adibidez, Joseba Sarrionandiaren *Kolosala izango da* liburuaren gaztelaniazko itzulpena, Juan Carlos Etxegoen "Xamar"-en *Orhipean, gure herria ezagutzen* lanaren gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko itzulpenak, edo iazko Euskadi Sariaren irabazle izan zen Jokin Muñozen *Bizia lo* lanaren gaztelaniazko bertsioa.



Aurten ere, hutsik egin gabe, ebatzi dira Kultura Sailak euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko lanetan diharduten pertsona juridiko pribatuei zuzenduriko diru-laguntzak. Diru-laguntza horiek honako esparru hauek, besteak beste, hartu dituzte gogoan: aisialdia, euskararen familia bidezko geroratzea; euskarazko irakur zaletasunaren sustapena; euskara eta etorkinak; euskarari loturiko gertakari sozialak; euskararen presentzia bermatze aldera bideratutako ekimenak;... Orotara berrehun eta zazpi egitasmo diruz laguntzea hobetsi da. Horiek, guztira, 1.000.000 euro jasoko dute.



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak arduradun berria du uztailaz geroztik: Patxi Baztarrika. Gobernu berriaren eraketaren ondorioz, 2002. urtetik HPSren ardura zuen Patxi Goenagaren lekua hartu du euskalgintzan ibilbide luzea eginga duen Baztarrikak.



Aspaldi ari da euskara sukaldaritzan agertzen. Oraindik orain, bi sukaldari handiren ekarpena dugu albiste, Juan Mari Arzakek eta Karlos Argiñanok errezeta-liburu bana kaleratu baitute eus-

karaz. **Arzak errezetak** du izena lehenaren lanak, eta etxean egiteko moduko 300 errezeta bildu dituzte bertan. Bigarren sukaldariaren liburuak **Egunero ondo jateko** du izenburu eta telebistan egindako ehun eta hamar errezeta jaso ditu bertan Argiñanok.



Euskara-elkartek indartzen eta ugaltzen joan dira. Dударik gabe, bere lekua egina dute euskalgintzan. Maiatzean, horietako batek, Durangoko **Barbero** elkarteak, 16. urteurrena ospatu zuen. Batzar nagusia egin, aurreko urteko balantzea egin eta datozen urteetarako helburuak landu zituzten. Horien artean lehena, euskara neska-mutil gazteen-garantz indartzea da.

Durangoko elkarteak bezala, Bergarakoak ere, **Jardun**-ek, urteurrena ospatu zuen, hamabosgarrena. Jardun euskara-elkarteak sortu zen garaiko helburu bera duela ari da lanean gaur egun ere: euskararen normalizazioa.



2004ko deialdiko Joseba Jaka beka jaso duten zortzi proiektuen zerrenda jakinarazi du Euskalgintza Elkarlanean Fundazioak. Edorta Jimenezek eta Lutxo Egiak irabazi dituzte eleberrirako bekak. Jon Aranok eta Luis Gardek poesiakoak, Etxeberria anaiek eta

Joxan Oizek haur eta gazte literaturakoak, eta Fito Rodriguezek eta Pablo Sastrek saiakerakoak. Hamabost hilabete dituzte orain egileek nork bere idazlana burutzeko.

Joseba Jaka beka duela bederatzi urte eman zituzten lehen aldiz eta dagoeneko 25 lan dira beka jaso ondoren argia ikusi duten liburuak. Horietarik batzuk, azken urteotako literaturaprodukzioan erreferentzia garrantzitsu izatera iritsi diren lanak.



Euskal literaturari dagozkion albisteak Euskal Herritik kanpo zabaltzeko lanean beste urrats bat egin da berriki. Jon Kortazar idazle, irakasle eta kritikariak **Bas-kische Literatur.**

Essays izeneko lana aurkeztu du Berlinen, bertako Ibero-Amerikako Institutuan. Liburuan, euskal literaturari buruzko ikuspegi orokorra ematen du egileak, berak idatzitako 12 artikuluz osatua. Berlingo Tranvia argitaletxeak kaleratu du lan hau.



Beste urrats handi bat egin du "Ereduzko prosa gaur" izeneko programak. Duela gutxi arte, euskaraz idatzitako 152 liburutarako testuek osatzen zuten programa horren corpusa. Oraindik orain, berriz, 2004an **Berria** egunkariari sei sailetan (Euskal Herria, Ekonomia, Gaiak, Mundua, Kultura eta Kirola) argitaraturiko testu guztiak sartu dituzte bertan, sei milioi hitzetik gora, kazetaritzako prosaren eredu gisa.


Ereduzko prosa Internet sarean dago (www.ehu.es), erabiltzaileek kontsultatzeko moduan.



Seigarren urtez, Udako Topaketa **Pedagogikoak** egin ditu Hik Hasi elkarteak Donostian, uztailaren 4, 5 eta 6an. Bertan, 32

ikastarotan banaturik, gaurkotasun handiko gaiak aztertu dira, euskaraz. Teknologia berriei buruzkoak izan dira batzuk, jolas kooperatiboan edo ikasleen arteko tratu txarren gainekoak, berriz, beste batzuk.

Ikastaroez gain, irakasleak elkartzeko eta beren esperientziak trukatzeko topaleku izan dira Hik Hasi elkartearen topaketak.



Asko dira hitzekin jolas egiteko zaletasuna dutenak: hitz gezidunak, hitz gurutzatuak, hieroglifikoak... askotariko denbora-pasak egiteko aukera dugu euskaraz **Luma** aldizkariaren bidez. Hilabete-

karia da, 3.000 aleko tirada du eta kiosko eta liburu-dendetan da 2002az gero.

Euskarazko denbora-pasa aldizkari hau Luma Hizkuntza Zerbitzuak enpresak sortu zuen eta, gaur egun, web orria ere abiarazi dute www.xedera.com helbidean. Bertan, 1.352 joko bildu dituzte, guztion entretenigarri.



Eusko Jaur-laritzaren **Euskalmet** meteorologia agentziak sakelako telefonoaren bidez eguraldiaren berri jasotzeko zerbitzua jarri du abian. Horretarako, SMS mezua igorri behar zaio Euskalmet erakundeari.

erakundeari.

Euskararen aldeko instituzio eta askotariko talde eta eragile guztien gaitetik, euskarari dagokionean Euskaltzaindia da erakunde ofiziala.

Gure hizkuntzaren akademia 1919an sortu zen Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Foru Aldundien babesean.

1976an, Espainiako errege Juan Carlos I.ak ofizialki onartu zituen erakundearen estatutuak dekretu bidez, bai eta izena ere: "Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia" da harrezkero.

Dekretu hartan bertan ezarri ziren Euskaltzaindiaren helburuak: euskararen gramatika-legeak ikertzea eta zehaztea; idazteko arauak ematea; hizkuntzaren eskubideak babestea; azterketa filologikoak egitea eta abar.

Ordudanik, bestalde, Euskaltzaindiaren eginkizun handienetako bat euskara batuaren bidean aurrera egitea izan da.

Euskaltzaindiaren egiturari dagokionez, bi sail nagusi ditu: Iker Saila, arlo guztietako arazo linguistikoen azterketa helburu duena (hizkuntzaren corpusaz arduratzen dena), eta Jagon Saila, gizarte-maila guztietan eta argitalpenetan euskara zaintzea eta berreskuratzea helburu duena (hizkuntzaren estatusaz ari dena). Euskararen Akademia euskaltzain osoek (24 kide), euskaltzain urgazleek (142 kide) eta oho-rezko euskaltzainek (18 kide) osatzen dute. Lehenengoek Erakundearen Osoko Bilkura osatzen dute. Euskaltzain urgazleek, berriz, lan-batzordeetan hartzen dute parte.

Euskaltzaindiaren barruan honako batzordeak dira: Gramatika; Dialektologia-Atlasgintza (Hizkuntza

Atlas); Onomastika; Literatura batzordea; Euskara batua batzordea; Hiztegi gintza; Ahoakera; Corpora eta Sustapena batzordeak, Jagon Sailekoak.

Batzorde hauez gain, egiturazkoak diren beste batzuk ere badira, hain zuzen: Argitalpen batzordea, Azkue Biblioteka batzordea eta Lege-ekonomia batzordea ere lanean ari dira.

Gaur egun Euskaltzaindia egiten ari den lanen artean dira bukatu berri den *Orotariko Euskal Hiztegia*, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*, *Euskal Gramatika* eta *Hiztegi Batua*.

Argitalpeni dagokionez, bilduma ezberdinetan antolatzen dituzte: *Euskera agerkaria*, *Euskararen lekukoak*, *Iker*, *Onomasticon Vasconiae*, *Hiztegiak* eta *Izendegiak*, *Literatura Klasikoa*...

Euskaltzaindiak zazpi euskaltzainburu izan ditu historian zehar. Ondoko irudian ageri dira, bakoitzari dagozkien kargu-datekin batera.



R. M. Azkue (1919-1951)



I.M. Etxaide (1952-1962)



J. M. Lojendio (1963-1964)



M. Lekuona (1967-1970),



L. Villasante (1970-1988)



J. Haritschelhar (1989-2004)



A. Urrutia (2005-...)

Euskaltzaindiaren Egoitza. Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo. Tel: +34 944158155. Azkue biblioteka Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo. Tel: +34 94 415 27 45. Arabako ordezkari San Antonio, 41. 01005 Gasteiz. Tel: +34 945 23 36 48. Gipuzkoako ordezkari Hernani, 15. 20004 –Donostia. Tel: +34 943 42 80 50. Nafarroako ordezkari Conde Oliveto, 2, 2. 31002 Iruñea. Tel: +34 948 22 34 71. Iparraldeko ordezkari Thiers, 18, 1. 64100 Baiona. Tel: +33 (0)559 25 64 26.




Azkue Biblioteka Euskaltzaindiaren liburutegia da eta zabalik dago ikerle orontzat. Euskal kultura gaien ikerkuntza eta hedapena sustatzen eta laguntzen saiatzen da.

Resurrección María Azkue zenaren espirituari jarraitu nahi zaio, euskararen ikerkuntza modu zientifiko batean landuz eta euskara bere tesuinguru naturalean kokatuz, hau da, Euskal Herrian, eta beronen Historian eta Kulturatan.




Hizkuntza Akademiak berak sortu edota han-hemendik jasotako diru-sarrerak baditu ere, Euskaltzaindiaren diru-bide nagusiak Eusko Jauriritzaren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien diru-laguntzetan du oinarria. Hori horrela, aurten, 2.575.456 € jasoko ditu Euskaltzaindiak.



II. Mapa Soziolinguistikoan ikus daitekeen bezala, euskararen ezagutzak gora egin du nabarmen Euskal Autonomia Erkidegoan. Horrekin batera, elebidun-eredu berriaren ezaugarriak ere finkatuz joan dira. Gaur egun, elebidun gehienak (% 66,3) hirietan bizi dira, batez ere hiru hiriburuetako metropoli-guneetan eta EAEko errepide-sare nagusietan lerritzen diren 10.000 biztanletik gorako udaletan, kostaldeko zenbait gunetan bizi direnak ahaztu gabe.

Arestian esan bezala, elebidun gehienak populazio-dentsitate handiko guneetan bizi dira, baina gune horietan erdaldun elebakarren indizea oso altua denez, zuzenean eragiten du elebidunek euskara erabiltzeko duten aukeretan.

Elebidunen hazkundera gazte-gertakaria da. Izan ere, 20 urtetik beherako adin-taldeetan nagusi dira elebidunak. Horrez gain, zenbat eta gazteagoa izan adin-taldea, are handiagoa da elebidunen ehunekoa. Gaur egun elebidun gehienek, %47,6k alegia, 30 urte baino gutxiago daukate.




Gazte elebidun gehien familia-ingurunea eta harreman-ingurunea erabat erdalduna da. Beren familietan inork ere ez daki euskaraz, eta populazio-dentsitate handiko metropoli-gune oso erdaldunetan bizi dira. Euskaldun berriak dira, hau da, lehen hizkuntza euskara

ez den beste bat izan dutenak eta eskolan ikasi dutenak.

Beraz, elebidunen kolektiboa oro har, baina bereziki gazte elebidunena, errotik aldatzen ari da. Euskaldun zaharrak, hau da, lehen hizkuntza euskara izan duten elebidunak nagusi dira oraindik, baina gero eta pisu txikiagoa dute elebidun guztietan. Aldiz, euskaldun berriak, esan bezala, gero eta gehiago dira bai kopuru absolutuetan baita portzentajeetan ere.

Ildo horretatik, azpimarratzekoa da euskaldun berriak nagusi direla 25 urtetik beherako gazteen artean.

Izan ere, euskaldun berriak nagusi dira 25 urtetik beherako gazteen artean.



Dena den, familia bidezko transmisioa Euskal Autonomia Erkidegoan ia erabatekoa da gurasoak euskaldunak direnean. Galerak, oro har, oso txikiak dira. Gainera, gero eta ohikoagoa da euskara transmititzea aitak ala amak, biatakit batek baino ez dakienean euskaraz. Horrelakoetan, noski, euskararekin batera gaztelania jaso ohi dute haurrek.

Baina, lehenago esan bezala, elebidunen ezaugarri berri horiek erabat baldintzatzen dute euskararen erabilera, eta bereziki etxeko erabilera. Hizkuntzaren erabilera gehien eragiten duten faktoreak bi dira: hizkuntza erabiltzeko erraztasuna eta hiztunen dentsitatea. Orain arte egin ditugun azterketek erakutsi digute

gaur egun duela 10 urte baino euskara gehiago hitz egiten dela oro har. Baina, erabileraren hazkundera hori batez ere eremu formaletan gertatu da, eta ez horrenbeste familian.



Berrogeita hamar urte baino gehiago dira Europako Kontseilua eta beste zenbait erakunde hezkuntzari europar ikuspegitik heldzen hasi zirenetik. Bide horretan, urrats handiak egin dira. Esaterako, azken hogeita bost urtean Europako herrialdeetako irakasleak eta ikasleak elkarlanean ari izan dira hainbat ekintzatan. Dena dela, hezkuntza-alorreko lankidetzara areagotu beharra dago eta, hezkuntzaren europar dimentsioa hobeto ulertzeko asmotan, liburu bat ondu zuen Margaret Shennan historialari eta pedagogo frantsesak 2001. urtean. Haren lana euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu da berriki: **Europa Eskolan** du izenburu eta hezkuntza-ikuspegi berri hori du helburu.



Herriko Etxe Euskaldunen Egunaren hiru-garren ekitaldia ospatu zuten maiatzaren 14an Maulen. Euskarra Herriko Etxeetan akordioa sinatu duten azapezak eta zinegotziak bildu ziren bertan, herri mugimenduetako eta euskalgintzako hainbat kideekin batera. Hautetsiek euskararen ofizialtasuna herrietatik bultzatu daitekeela azpimarratu zuten. Horretarako, hautetsien borondatearen garrantzia azpimarratu zuten.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatuta batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuak ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan: **Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza** / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: I-Sosoaga@ej-gv.es